



PRESKIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, AUTOMOBILGINTZAKO ERREGAIEN HORNIKUNTZA EGITEKO GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ (X19030 ESPEDIENTEA)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea izango da automobilgintzako erregaien hornikuntza egitea zerbitzu guneetan Gipuzkoako Foru Aldundiko ibilgailu eta makinentzat, eta esparru akordio honi atxikiriko gainerako entitateentzat. Entitate horiek administrazio-klausula partikularren agiriko X, eranskinean zerrendatu dira.

Agirietan ez dira zehaztu kontsumituko diren kopuru zehatzak; kopuru horiek une bakoitzean dauden beharren eta gaitasun ekonomikoaren arabera izango dira. Edonola ere, eta enpresa lizitatzailerik ideia bat izan dezaten, preskripzio teknikoaren agiri honetako I. eranskinean adierazi da entitate bakoitzak zenbat kontsumituko duen (gutxi gorabehera kalkulaturik); hala ere, zenbaki horiek ez dute esan nahi kopuru horiek erosteko konpromisoa hartzen denik.

2. HORNIKUNTZAREN EZAUGARRIAK: BALDINTZA OROKORRAK

2.1 ERREGAIEN KALITATEA

Esparru akordio honen xede diren agirietan eskainiriko eta ezarritako baldintzak automobilgintzako gasolioari eta gasolinei aplikatuko zaizkie.

Esparru Akordioaren indarraldian, hornitu beharreko erregaiak bete egin beharko dituzte, une oro, aplikagarriak zaizkien legezko zehaztapen teknikoak eta 61/2006 Errege Dekretuan, urtarrilaren 31koan, nahiz haren ondorengo aldaketetan zehazten direnak; hain zuzen ere, dekretu horrek ezartzen ditu gasolinaren, gasolioaren, fuel olioaren eta petrolioaren gas likidotuaren zehaztapenak, eta bioerregai jakin batzuen erabilera arautzen du.

2.2 HORNIKUNTZAREN JARRAIPENA

Enpresa adjudikaziodunak bermatu egin behar du erregaien hornikuntza, eta ezingo du argudiatu eskainiriko produkturen bat falta dela edo haren gabezia duela, Esparru Akordioak dirauen bitartean; hori horrela izango da greba egoeretan ere, edo lan arloko nahiz beste mota batzuetako gatazka daudenean ere.

2.3 HORNIKUNTZAREN BALDINTZAK



Enpresa adjudikaziodunak arau guztiak bete beharko ditu produktuen garraioari, biltegiatzeari eta banaketari dagokienez, bai eta produktuen erabilerari dagokionez ere. Era berean, bete egin beharko ditu segurtasun eta higienaren arloan eta ingurumena babestearen arloan aplikagarriak zaizkion alderdiak ere.

Bereziki, bete egin beharko ditu Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legean (34/1998 Legea, urriaren 7koa) eta haren ondorengo aldaketetan ezarritako baldintzak; era berean, horiek osatzen edo ordezkatzan dituen edozein arau ere bete egin beharko du.

3. HORNIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

1. sortan sartzen da automobilgintzako erregaien hornikuntza, esparru akordioari atxikiriko entitateen ibilgailu eta makinentzat, zerbitzuguneetan.

Hornigaiak izango dira automobilgintzarako erregaiak, zehazki esateko gasolioa eta gasolina (95 eta 98 oktanokoa). Erregaien hornikuntza egingo da adjudikaziodunak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dituen zerbitzuguneetan, eta, inoiz, lurralde historiko horretatik kanpo dituenetan. Zerbitzuguneak 1905/1995 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen ditu. Hain zuzen ere, Legegintzako Errege Dekretu horrek onartzen du erregaiak eta petrolioazko erregaiak publikoari saltzeko instalazioetan txikizka banatzeko Araudia eta; era berean, Legegintzako Errege Dekretu horrek garatzen du Petrolioaren Sektorearen Antolamenduari buruzko Legearen (34/1992 Legea, abenduaren 22koa) lehenengo xedapen gehigarria.

Esparru akordioan sartzen dira, era berean, etorkizunean merkatura litezkeen erregaiak, adjudikazioan ezarri diren baldintza berak betez.

3.1 ERREGAIEN KALITATEA

Hornikuntzaren xede diren produktuak, Esparru Akordioak dirauen bitartean, zerbitzuguneetan kontsumo orokorrerako ematen diren berak izango dira, eta bete egin beharko dituzte publikoari ohiko moduan saltzeko beharrezkoak diren arauak edo lege arauak. Administrazioak eskubidea du hornituriko produktuari probak egiteko.

3.2 HORNIKUNTZAREN BALDINTZAK

Automobilgintzako erregaien hornikuntzari dagokionez, adjudikaziodun ateratzen den enpresak proposaturiko zerbitzuguneen bidez egingo da hornikuntza hori.



Zerbitzuguneek 1905/1995 Errege Dekretuan ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte, eta behar bezala legeztatuta egon behar dira.

Entitateek eskubidea dute beren ibilgailuek adjudikaziodunak eskainiriko saretik kanpoko zerbitzuguneetan erregaiak hartzeko; horretarako, beharrezkoa edo gomendagarria izan behar da hori, beharra atzeratu ezinezkoa eta arrazoitua delako.

3.3 HORNIKUNTZA SISTEMA

Prozedura honen xedea burutzeko, ibilgailuetan eta makinetan hornikuntza egitea, enpresa adjudikaziodunak eskainiriko zerbitzuguneetan hartuko dira erregaiak. Erregaiak hartze hori grabatu egingo da fakturatzeko, banda magnetikozko txartelak, txipak edo antzekoak erabiliz.

Enpresa lizitatzailerik txartela eskainiko dute erregaiak hartze hori erregistratzeko eta kontrolatzeko, eta txartel horrek honako gutxienezko baldintzak bete beharko ditu:

- Indarrean dauden arauen arabera egin behar da txartela, eta faltsutzeko zaila izango da.
- Ibilgailu bakoitzarentzat bakarra eta kodifikatua izango da, kontrakoa esaten ez den kasuetan salbu. Era berean, ezingo da erabili beste ordainketa edo helburu batzuetarako, soilik automobilgintzako erregaiak hartzeko.
- Gutxienez datu hauek eduki behar ditu: enpresa hornitzailea, txartelaren zenbakia, iraungipen data, baimenduriko ibilgailuaren matrikula eta entitate kontratatzailea.
- Baliagarria izango da enpresa adjudikaziodunaren hornikuntza sareko edozein zerbitzugunetan erregaiak hartzeko.
- Txartelari esker, egiaztatu ahal izango da erregaia hartzen duen ibilgailua txartelean baimendurikoari dagokiola.
- Txartel bakoitzeko muga ekonomiko bat ezarri ahal izango da.

Erregaia hartzean txartela erabiltzen den bakoitzean, harturiko produktuaren tiketaren bi kopia egingo ditu zerbitzuguneak; bertan, datu hauek agertu behar dira gutxienez:

- Enpresa hornitzailea, izen soziala eta IFK.
- Zerbitzugunearen helbidea.
- Erabilitako txartelaren identifikazioa.
- Hornikuntzaren eguna eta ordua.
- Harturiko produktua eta litro-kopurua.
- Ibilgailuaren matrikula eta erregaia hartu duen ibilgailuaren kilometroak.



- Publikoari saltzeko prezioa: harturiko erregaiaren litroko prezioa.

Tiket horren kopia bat erregaia hartu duen pertsonak gordeko du, eta bestea, berriz, zerbitzugunean bertan geratuko da. Tiketean agertu behar da erregaia hartu duen pertsonaren sinadura, pasahitz bidez baimendua izan ez denean.

Enpresa adjudikaziodunak txartel bat emango du ibilgailu eta makina bakoitzarentzat, eta ez da egongo mugarik ematen diren txartelen kopuruari dagokionez. Txartel horien kopurua aldatu egin ahal izango da, esparru akordio honen bidez kudeaturiko ibilgailu kopuruaren eta beharren arabera. Txartelak enpresa adjudikaziodunaren jabetzakoak izango dira, eta horrek bere gain hartuko du haien kostua.

Enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko zaio txartel berrien eskaririk dagoen, ibilgailuen altak direla-eta; eta, era berean, hornikuntzan izaniko bajak, ibilgailuen bajak direla-eta. Era berean, txartelak galtzen badira edo lapurtzen badituzte, hori ere jakinarazi egin beharko da. Astebeteko epean txartel berriak emango dira, behin enpresa adjudikaziodunak dagozkion eskariak jaso ondoren. Txartelen bajak berehalakoak izango dira, dagokion jakinarazpena egiten denetik.

3.4 FAKTURAZIOKO DATUETARA SARTZEA

Enpresa adjudikaziodunak hileko fakturazioa sailen edo kostu zentroen arabera egin dezan, entitate bakoitzak enpresa adjudikaziodunari entregatu behar dio sail edo kostu zentro bakoitzera atxikiriko ibilgailuen eta makinen zerrenda, eta, ondoren, kontratuan barrena aldaketak egiten badira, aldaketa horiek ere jakinarazi egin beharko dizkio.

Saileko faktura elektronikoen, legez eskatzen diren datuez gain, erregaiak hartzearen datu hauek eduki behar dituzte: Zerbitzugunearen helbidea, erabilitako txartelaren zenbakia edo matrikula, hornikuntzaren eguna eta ordua, harturiko produktua, litro kopurua, publikoari saltzeko prezioa eta deskontua.

Horrez gain, euskarri informatikoan edo web bidez emango da erregaia hartzeari buruzko informazio xehatua eta osoa, inongo kostu gehigarririk gabe. Web bidea gaitzen bada, datuak informatikoki jaitsi ahal izango dira.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoa den informazio guztia eman beharko dio erakundeari, ibilgailuek eta makinek eginiko erregai-hartzea kontrolatzeko.

Donostian, 2019ko irailaren 19a
Zerbitzu Orokorretako burua

Sin.:  Francisco José Pérez Domingo



I. ERANSKINA
ATXIKIRIKO ENTITATEAK ETA KALKULATURIKO KONTSUMOAK

Entitatea	Urteko gastua (euroak)
Aizarnazabalgo Udala	3.000 €
Alegiako Udala	6.000 €
Amezketako Udala	3.500 €
Andoingo Udala	23.000 €
Azkoitiko Udala	20.000 €
Badesa, SAU	41.000 €
Bergarako Udala	64.000 €
Eibarko Udala	26.000 €
Elgoibarko Udala	15.000 €
Garbitania	155.000 €
Getariako Udala	1.200 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	430.000 €
Gipuzkoako Urak	215.000 €
Hondarribiko Udala	32.000 €
Hernaniko Udala	25.000 €
Ikaztegiako Udala	1.500 €
Kabia	5.000 €
Lasarte-Oriako Udala	9.000 €
Legorretako Udala	4.800 €
Oiartzungo Udala	18.000 €
Txingudi Zerbitzuak	22.000 €
Uliazpi	28.000 €
Urnietako Udala	10.000 €
Zarauzko Udala	22.000 €
Zestoako Udala	10.000 €
TOTAL	1.190.000 €

